



Ula Iruretagoiena Busturia - ulissima5
Arkitektoa


Edadetuak

Nolakoak behar dute izan edadetuen-
tzako guneek eta
espazioek? Ezber-
dinak al dira? Zerk
bereizten ditu?

Adinaren arabera espazio ba-
naketak behar al dira auzoetan?
Zer leku eskaintzen zaio espa-
zio publikoan adinduei? Zer per-
tsona profil da pertsona edade-
tua? Zer egoera ezberdin bizi
dituzte edadetuek osasun eta
ekonomia ezaugarrien edo kla-
se eta generoaren arabera? Zer
dibertsitate motaz ari gara?

Biztanleria zahartua duen gi-
zarte batean, horrelako kezkek di-
seinu teknikari ororen mahaian
egon beharko lukete. Badira ha-
maika diseinatzaile horrelako
gaietan sakontzen dihardutenak,
baina mahai espezializatueta
mugatua dago afera, diseinu oro-
korretik banandutako kaxoi baten
moduan tratatua. Adinduentzako es-
pazioak espezifikotasunetik jorra-
tzea eraginkorra bada ere, plante-
amenduaren muinean txikitasuna eta
aparteko afera gisa ulertzea egon
daiteke. Egokiagoa iruditzen zait be-
girada zehatz batekin egindako lan-
ketak diseinu barneratzaile baterako
bokazio izatea, zehar-begiradak di-
seinu homogeneoa zalantzan jar de-
zan.

**Onartuta dago esatea pertsona
adinduak espazio publikoaren gai-
neko gogoetan ahaztuak edo baz-
tertuak direla.** Kontuan hartu behar
da bizitza produktibotik kanpo da-
goen biztanleria segmentua dela,
baina horrez gain, behar eta izaera
unibertsalen ebazpena bilatzen duen
diseinuaren kanonetatik ateratzen
diren pertsonen gaineko amnesia es-
trukturala azpimarragarria da. Era-
biltzaile abstraktu bat irudikatu be-



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

har denean, behar fisiko eta funtzio-
nalak sinplifikatu eta homogeneiza-
tzeko joera izan ohi dugu, horregatik
gertatzen dira deigarriak dibertsita-
tea aintzat hartzen duten eta inte-
gratzaileak diren jokabideak. Beste
muturrean, adinduentzako soilik di-
ren gune publikoak sortzeko joera
zahartzaroaren aurrean gizarteak
egiten duen keinu tranpati bat beza-
la ikusten dut. Adinduenganako
ahantzura hori Mendebaldeko gizar-
teak zahartasunarekiko duen kosmo-
bisioaren emaitzaren isla baita; eta
ikusgarritasuna kentzea, estrategia
orokortu bat. Gogoan dut zenbateko
inpaktua sorrarazi zidan konfina-
menduaren garaian edadetuak kale-
ra irteteko ordutegiak harrapatu
ninduen uneak. Kontxako paseale-
kuan gorputz inklinatuen eta pru-
dentsiaz beteriko ibilkera pausatuen
paisaia urbanoaren ikusle izan nin-
tzenean, edadetuak ezkutalekutik
atera zirelako sentsazioa izan nuen.

Baina badago estetikarekin erla-
zionaturiko beste ñabardura bat ere,
edadetuen espazio publikoaren go-
goetan zeresan handia duena. Eta
gaztetasunaren eta berritasunaren
irudiarekin loturikoa da. Espazio eta
eraikinetan, botox eta azido hialuro-
nikoaren baliokide diren eraikuntza
teknikak existitzen dira, “*betigazte*”
estetikaren begirada baten egitura-
tik pentsatuak. Espazioaren ederta-
suna eta garbitasuna denboraren
arrastoak ezabatzearekin konfundi-
tu ohi da, eta denborak sortutako in-
perfekzioa berrikuntzak gainditu be-
harreko erronka bihurtzen da. Edo
ofizialki “zahar” etiketarekin izenda-
tzen diren eraikinak eta espazioak
ditugu, zaharraren itxura onartu bat
eraikiz. Eraikinen kontakizuna “per-
tsona” hitzarekin ordezkagarria li-
tzateke, espazioak gizarte baten ba-
lio eta ikusmoldeak bistaratzen
dituelako, baita zahartzaroaren afe-
ran ere. •